

Lehen Hezkuntza

Ekintza

ZER EMATEN DIGUTE IBAIEK?

HELBURUAK

- Ibai-ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak ezagutzea.
- Gizakiok ibai-ekosistemak zainduko ez bagenitu jasango genituzkeen kalteak ulertzea.
- Ibai-ekosistemak osatzen dituzten elementuak bereizten ikastea.

KONPETENTZIAK

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura.
- Hizkuntza-komunikazioa.
- Giza eta arte-kultura.

GARAPENA

Ikastetxetik gertu dagoen ibai edo erreka garbi batera inguratzea proposatzen dugu. Han gaudela, galdera hauek egingo dizkiegu ikasleei:

1. Zure iritziz, zer ematen digute ibai honek eta horren ekosistemek?

Taula hau osatzea lagungarri izan dezakete:

ELEMENTUA	ZER ONURA EKARTZEN DIGU?
Ura	
Landaredia	
Izakiak	
Ibai ingurua	
Ibaiaren paisaia	

Taldea taula osatutakoan, ikaskide guztien artean komentatu eta ideia guztiak azalduko dituzte.

Ondoren, berriz ere taldeka, bi galdera hauei erantzuten saiatuko gara:

2. Nola aldatuko lirateke lehen aipatutako onurak ibaia zikin egongo balitz, hau da, ura kutsatuta edo ibai ingurua zaborrez beteta balego?

3. Eta ibaia desagertuko balitz, adibidez beste erabilera bat emateko desbideratu edo lehortuko balitz?

EZTABAIDATU ONDORIOAK

Ondoren, ikasle guztiak elkarrekin jarri eta ateratako ondorioak guztien artean eztabaidatuko dituzte.

EMAITZAK AURKEZTU

Amaitzeko, aztertutako onurak eta ekosistema hau babesteko aurkitutako arrazoiak kartoi mehe batean laburbil daitezke.

